

Paisaia produktibo berriak

Zigor Iturbe

ARKITEKTURAREN joan etorriak biltzen dituen ekimenaren hirugarren edizioa gauzatu du joan den ekainaren 12-tik 22-ra bitartean *BIA Urban Regeneration Forum*-ak. Antolatutako ekintzen artean herritar guztiei zuzendutako "Denentzat zabalik" doako haztrentzat tailerrak, arkitekto guztien erakusketak, bizikletaz burututako bisita gidatuak zein hitzaldiak aurkitu ditzakegu. Horietako asko Euskal Herriko Arkitektoen Elkargo Ofizialaren Bilboko egoitzan burutu izan dira, baina beste asko Bizkaiko hainbat herritan zehar Bakio, Iurreta, Markina, Durango eta Zornotza kasu.

Bestalde *Viviendas Municipales-Etxebizitzak* erakundeak instituzio gisa izan duen bilakaeraren eta etxebizitzaren alorrean egin dituen jardueren erakusketak ere antolatu da, jarduera horiek testuinguru hartan izandako garrantzia helaraztea helburu izanik, hainbat dimentsio aintzat hartuta. Funtsean, erakusketaren helburua da, proiektuak eraiki zirenean izandako eragina testuinguruan jartzea kasu bakoitzean egondako bilakera ikusaraziz, erabiltzaileen testigantzak ere jasotzeko.

Esparru profesionalera hurbilduz, Bilboko Otxarkoagako auzoan aukeratu den esparruko barne-espazioen ikerketa izan da ardatz *Workshop*-aren atalean "Lan/Bizi: Otxarkoagarako birgaitze-estrategiak" izenburupean. Euskal Herriko Unibertsitateko eta Nafarroako Unibertsitateko dozena bat arkitekturen ikasleak, hainbat maila eta jatorritakoak (Euskal Herria, Bolivia, Kolonbia, Argentina), auzoa birdefinitzeko eronkari egin dituzte aurre herritarrekin izandako bilera eta hitzaldien laguntzarekin, zein arkitekturen esparru profesionalak diren tutoreen babesarekin.

Bestalde, auzo berdina gidalerro izanik eta "Ardatz zibiko berria Langaran kalean, Otxarkoaga, Bilbo" izenburua zeramala, ikasleak eta arkitekto guztiak zuzendutako nazioarteko ideia lehiaketa ere deitu zen, dauden eraikinetan erabilera osagarri edo etxebizitza modu berriak jasotzera gonbidatuz.

Manifestua

Ekonomia produktiboaren eta hiri-egituraren arteko lotura du ardatz "Paisaia produktibo berriak" izenburuarekin aurkeztutako edizio honek. Besteak beste, ondoko galderei erantzutea bilatu da: Zer eragin izan dezakete produktio-eredu berriak hiriarren biziberritzean? Ba al dira jardunbide egokien ereduak gure ingurunean? Zer ekintzen bidez lor daitezke hiriak lurraldean duen itzala handiagoa izatea? Gaurdaino izan ez ditugun zer eragilek ekar dezakete iraultzeko, produktioaren eta kontsumoaren artean oreka handiagoa lor dezan lurralde batek?

Hirigune eta herrietako eredu ekonomikoaren etengabeko eraldaketak lurraldeari eragiten dio zuzenean eta ondorioz honen antolaketa, honen urbanismoari. Industriaren itzala baztertu ondoren, enpresa-parkeek hartu zuten lekua merkatuaren beharritara berrietara egokitzeko. Ondorioz, egitura pro-



Leire Milikua arkitektoa komunikazioa aurkezten BIA Kongresuan. Argazkia: Irantzu Duro



Parte-hartze prozesua Arrastarian. Argazkia: Leire Milikua

duktiboaren integrazio-maila murrizten joan zen hirietan, gaur egun, txikia delarik. Industria ondoko hiri garapen gehienak etxebizitza lerro eta hirugarren sektoreko ekipamenduen eraikuntzan oinarritu dira eta horiek, oso gutxi-tan lortzen dute jarduera-interes-gune gisa egituratzeko gai izango diren auzo konplexuak eratzea. Hiria berronertzeko planetatik ekonomia produktiboa baztertzeko berekin ekarri du produktio-zerotroak hiririk alde egin eta periferian kokatzea, eta horrek, aldi berean, beste arazo batzuk eragin ditu, hala nola, garraio-arazoak, kutsadurakoak eta hartu-eman sozialien alorrekoak. Ekonomia produktiboa baztertzeko ekoizpen-zerotroak hiririk kanporatzea ekarri du periferian kokatuz eta horrek, mugikortasun, kutsadura eta harreman sozialaren egiturazko arazoak eragin eta nabarmendu ditu habitataren eta lanerako espazioen arteko desoreka areagotuz, bereziki, egoera ahulenean dauden langileei eraginez kalteak.

Helburua da, ondo saretutako egitura produktiboa eta lurraldean sustraituta sortzea, hazi eta berramatu ahal izango dena hiri erresiliente eta moldagarri baten esparruan, ez hiri hedakor batean. Ezinbestekoa da honetarako hainbat eskalatako espazioak lehenera ekartzea: komunitate txikiak, elementu publiko eta pribatuak dituzela, zenbaitetan muga oso lausoa

duela, bai eta egitura zabalak ere, sektore edo barruti bat osorik hartzen dituztela. Gaur egun etxetik kanpo garatutako lan-eredu tradizionala aldatu egin da, eta etxebizitza beste funtzio bat bete-tzen du; bizitza pertsonala eta lan-eremu malguta da.

Gure ingurune hurbilari so, produktioaren eta etxebizitzaren arteko lotura erakusten duten aurrekari mamitsuak ditugu baserrietan, erabileren arteko hibridazioaren adierazgarriak diren tipologiak erakutsiz. Lurraldearen baliabideak eta ahalmenak maximizatzeko, eta habitata eta produktibitatearen arteko aurkakoak izango ez dituzten paisaia konplexuak sortzeko, ezinbestekoa da beste bide batzuk aztertzea.

Biltzarra

Hiru ardatz nagusitan egituratzen den nazioarteko kongresuak borobiltzen du *BIA*-ren (*Bilbao Bizkaia Architecture*) azken edizioak: "Paisaia eta lurraldea"; hondakinak eta kontsumo ekoiz-

penean, hiri-nekazaritzaren eragina baserri eta hiriarren arteko mugen berrantolaketa. "Azpiegiturak eta teknologia"; teknologia-industriak txertatzea hiri plangintzan, azpiegitura zaharkituen berrkurapena, industria-ondarearen babesa. "Etxebizitza eta lana"; produktioaren eta hiri-bizimoduaren arteko gorabeherak, etxebizitza-parkearen egokitzeko etxebizitzaren eta produktioaren elkarbizitza, lan eredu berrien tipologiaren eragina.

Manifestuak luzatutako galderak, *call for papers* deialdiaren bidez jasotako komunikazioek landutako eta aztertutako ikerketa eta proiektuak ardatz izanik eztabaidatu ziren hiru egunetan zehar. Eta komunikazioetan aurkeztutako proiektuen artean, bada kongresuaren manifestuari helduz egungo hiri-plangintzari goldea pasatzen dionik. Ingurumen zientzietan lizentziatua den Sergio Gallegorekin batera *OREMAI Lurralde-laborategi Integrala* taldea osatzen dutelarik, "Nekazaritza-parke baten jaiotza: Arrastariako etorkizuneko nekazaritza-parkerako lehen pausak" izenburupean Amurrioko Arrastarian gauzatutako proiektuaren komunikazioa aurkeztu zuten Leire Milikua arkitektoa eta Irantzu Duro ingeniari agronomoak.

Ikerketa honen helburua Arrastarirari hoberen egokitzeko zitaizon nekazaritza-parke ereduaren garapena eta definizioa izan dira. Horretarako, lehenik beharrianak, kezak eta etorkizuneko nekazaritza-parkearen eragin eremuan gaur egun presente dauden sektoreen eragileak eta parkearen erabilerari lotuta egon zitezkeenak identifikatu dira eta, ondoren, beharrezko horien implementazioaren bideragarritasun ekonomikoak, sozialak eta ingurugiroarena baloratu dira.

Proiektuaren emaitzen artean Arrastariako heranean nekazal sektoreak, bertako biztanleriak eta nekazal-parkeak etorkizunera tokian eskaintzen dituen aukeren harreman argazkia da. Emaitza horiek *AMA* (Ahultasunak, Mehatxak, Indarrak, Aukerak) matrizean irudikatu dira inplikaturako sektore guztiekin izandako elkarrekintzak bilduz. Ahulguneen artean sektoreko beste eragile batzuekiko desabantailak adierazi dira eta horien artean eragileen adina, belaunaldi erreleboak, antolaketa gabeziak eta gertuko kontsumitzailearekiko kontaktu eza aurrizten dira. Indarretan berri, nekazal tradizio handiko gunea izatea, luraren nekazal balio eta ingurune balio altua, komunikazio azpiegitura egokiak, lurzorua tipologia osagarriak, uraren hornidura sare egokia eta errotak bezalako ondare balioa duten nekazal egitura zaharrak daude. Mehatxak kanpotik datozela ondorioztatzen da, espazioaren beste erabilera batzuen nahiak nekazal proiektuen garapena mugatzen dutelarik. Baita lurzorua kutsadura eta erabilera bateraezintasunak gertatzen dira, azken hauek egungo hiri plangintzaren araudien ondorio direnak. Aukeretan biltzen diren alderdi positiboen artean, kalitatezko, garaiko eta gertuko elikagaien eskaeraren igoera, kontsumo ohiturak aldatzeko eta produktuen prezio justua ordaintzeko prest dauden pertsonak, eskolatako jantokietan bezalako esparru publikoetan bertako elikagaiak erabiltzeko boroandata eta *HAP*Oaren (Plan Orokorra) diseinuan parkean garatutako diren aktibitateak barneratzeko borondata azaltzen dira besteak beste.

Matrizean jasotako emaitzetatik abiatuz, lau lerro eragile proposatzen ditu proiektuak beharrezkoak eta bideragarriak ikusten dituenak: Batetik, nekazal ustiapenen irabazpen igoera; gertuko komertzializazioa, ekoizpen egituren hobekuntza, haranaren eta bertako produktuen promozio bateratua eta energiaren autogestioaren birtartze. Bestetik, ekoizpen kostuak murriztea; aholkularitza tekniko ekonomikoaren bitartez, ekonomia zirkulararen ereduak txertatzea lagunduz, energiaren auto-kontsumoa bultzatuz eta lur-banquetak eratzuz. Hirugarren lerro eragilean, gaur egun nekazaritza-abeltzaingintzan lan egiten duten pertsonen ongizatearen zaintza eta lanbidearen duintzea eta errekonozimendu soziala bultzatzea errebinkatzen dira, burokraziaren gutxitzea eta proiektu berrien garapena eratzeko moduak aztertzea proposatuz. Eta azkenik, nekazal jarduerak tokioan gaitetik dauden araudiek beharritza duten babes baldintzetara (ingurugiroa, paisaia, ondarea...) egokitzeko euskarria eta promozioa berramaitzea.

Saiolari amaiera eman zion mahai-inguruan jasotako kezka: Azkenaldian gure hirietako erakargarriak zeintzuk diren ikusita, sorginduta gaituen gastronomiaren *glamourak* ez ote du bideragarriak diren elikadura politikak gure Lurralde Antolamenduan txertatzearen gosea asebeta?



"Sorginduta gaituen gastronomiaren glamourak ez ote du bideragarriak diren elikadura politikak gure Lurralde Antolamenduan txertatzearen gosea asebeta?"